

ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

209n. zenbakia
uztailla/dagonilla 1996



ERREKORD EGON ALDUNTIA
BIZKAITARRAI BAI
LAGUNTZARI E?



UDEA TA JAIK
ZEZENAK BAI?
ALA ZEZENAK EZ?

EMAKUMEA

EMAKUMEA

Lora ederrak dagoz
baratza zelaian
usain gozoetan;
emakumea dabil,
erregiña bezela,
zuri, lilietan.

Illezkorra dirudi
zure edertasunak
urrezko bitsetan;
zegaz bardindu neike
zure ezpanetan...?

Eguzkia otza da
mendi tontor gaiñean
agertzen danian...
zure maitasun garrez
bardindu nai ezker
biotz odolean.

Lurreko ontasuna
baiño menago zara
eztitanian:
on oro batu zendun
andra ta ama legez
biotz barrenian.

Itxas ur dana baiño
zabal ta sakonago
daukazu biotza;
urdin zara ta garden
errukizko garretan
urturik bizitza.

Jakituria eder
etxe arazoetan
sendira begira;
poza dario geroz
sendiko giroari:
argi ta dizdira.

EUZKOTAR EMAKUMEA

Gaztetasun ernean
zer ezagutu neban
euskaldun etxean...!
urre-gorriak ziran;
zeruak, ala, naita
lilien artean.

Larrosa artu nai dot,
loretan ederrena,
zugaz bardintzeko:
baiña uts, ezer ez da:
goonetan, zu, zara
bitxi bakarreko.

Euzko emakumea,
zu, aurrelari ziñan
askatasunian;
Aberriaren deia,
gogoz, entzun zenduan
enderri maitean.

Zenbat lan eder, gogoz,
orraztu zendun eskuz,
gizonei begira;
zenbat maitasun urtu.
iñoiz, aspertu gabe
lanaren arira.

Erriaren ardurak
zure nortasunean,
miñez, sartu ziran;
zeruan izarrak letz.
illuntasun orduan,
argi izan ziñan.

Pozaren gar bizia,
bakean eta gudan,
ixuri zenduan;
euskal sendi ederrak
maitasunetan dagoz
amaren onduan.

BERTSO ETAN

Ordu onetan, dardaraz
daukat
nere pultsua aidean,
ikusirikan gizon prestuak
begi bi onen aurrean;
beste aldetik, ez nagizue
bildurrez sartu lurpean,
jakituririk ez ba-dut ere
aiskide gara lanean.

Gauzarik aski ikus ditugu
gure bizitza-bidean,
denak ez dira ain eder
izan
gure gogoaren eran;
denporalia joan ondoren,
geratzen gara lanean.
oraindik ere esan gengike
bizi gerala fedean.

Ikasi gendun jakituriak
gogora daigun bizian,
Kristo Maisuak egin
ebana.

bakarra zala lurrian;
mitozko itzak esan ta
esan
etzan ibili aidian,
nekeak, beti, alde
danetik
izan zituan bidian.

Jesus Jaunaren jakituria
izan nai dana guztiak
bizitz osoan bearko ditu
artu beretzat nekiak;
munduak legez ez dau
argi tzen
Kristoren argi zuziak,
mitoak mito alde batera,
lagundu beizku fediak.

Sarri, entzun dut aldi
onetan
esakun bildurgarria,
moja ta praille ta abadeak
galdu dabela erria;
Jaunak esan zun, ez
argitzeko
gizonen uts egitea,
ordu-sasoia eltzen
danean,
eingo dela justizia.

Ainbeste gauza entzun
genduzen
zuzentasun izenian,
baña, nun, dira egite
onak
erriarentzat onian;
bide ontatik gabiltzen
danok
zaindu gaitezen fedian,
Nazaretetik argituko da
zuzenbidea lurrian.

Ebanjelio argitasuna
ezer ez ederragorik,
umildadea norberarentzat
gizon danak maitaturik;
maitekor danak ez dau
zapaltzen
ez kentzen eskubiderik,
zurea zutzat, nirea nitzat,
elkartasunez jantzirik.

Paulin

UDA, JAIK ETA BESTE KONTU BATZUK

EGOKIAK?

Uda, atsedentaldia, opon-ak. Ondartza, mendia, bi-daiak, leku eta jende barria ezagutzea. Berba batean esanda, zoramena.

Jendea nonai, ondartzak beteta, dana izerdia eta beroa (bear dan moduko eguraldia izan ezker, bestelakorik ere badaki egiten eta).

Eta udeagaz batera jaiak.

Baina aspaldion ikusten doguzanei jaiak deitzekorik badago?

Ez nire ustez, eta gainera zalantza barik diñot! Parte artzearen izenean eta kulturaren izenean itzelezko astokeriak egin direla uste dot. Ezin dot esan leku guztietan bardin gertatzen diranik baina toki gitxi batzuetan izan ezik jaiak poztasuna eta alaitasun euki bean-ean ezaugan-itizat, edaria eta beste gauza batzuk daukez.

Alan eta guztiz ere badira leku batzuk ere (gitxi, eta gitxi direnez, badakizu, salbuespenak legea baieztatzen dau) ez dabenak jasan "ban-iztasunaren" eragina, naiz eta aurkitzeko sakon eta zabal arakatu bear dan Euskalerriko mapan.

* * *

ESKATZEN DANA EMON?

Zer da ikusten dana en-ietako jaietan?.

Ekonomi lege batek eskariak eskeintza sortzen daua esaten dau. Zer eskatu axe emon!. Orixe da jartzen dan atxakia. Gazteriak zera eskatzen dauanez, berbera emon bear. Alkohola gura dauala, txoznak jan-i; gau-pasa egin gura dauala, musika gaba guztirakoa (naiz eta on-ela erri guztiak egin bear izango dauan gau-pasa, ez da egongo lo egingo dauanik musikak dirauan artean ezta gero ere, aun-ekoak "musikariak" sortzen bait dauz; rock-a edo antzekoren bat nai dauala, talderik zaratatsuen ekan-i.

Badirudi zenbat eta zaratatsua izan ohea dala, eta ez daukat ezer gaur eguneko musikaren kontra, danatarikoa dago-eta, bai ona eta bai txarra, sasoi guztietan gertatu dan bezela, baina ezin da bolumena on-enbeste altxatu barik entzun?.

Guraso batzuk euren semeekin jokatzen daben modura jokatzen dogula uste dot, negan-ik ez daien egin eskatzen daben guztia emon seme-alabei! Baina ori ete da semeak ezitzea?

ZER ESKIÑI?

Ekonomi legeekaz jarraiturik badago beste bat eskeintzak eskaria sortzen dauala esaten dauana. Zeozer emoten badozu, on-enganako zaletasuna sortu daikezu.

Eziketan ere orixe egiten da, gaztetxoei eskeini (ikas-tera beartu?) egiten jake. Batzurenagan zaletasuna sortzen da, baina beste batzurenagan amon-ua, bere an-iskuak ere badagoz-eta.

Eta zer da gazteei eskeintzen jakena? Zelango gazteria gura dogu? "Alaia eta burrukalaria"? "Jaiak bai eta bun-uka ere bai" esaten dauana?.

Zeren alde jakin barik ere burruka egiten dauana?

Urte batzuk direla politika eta jaiak oso lotuta doaz: Amnistia dala, presoak Euskalen-ira dala, andiko ikun-ik ez eta emengoa bai, "txapel oken-ak" kanpora eta txapel artezei an-ika (an-ika bakan-ik balitz!), azken batean "gora gu eta gutarrak, eta gainera nagusi edo mustun-ak ausi" dala jaietako oiugusia esan geinke.

Gazteen odola berotzea ez da bat ere gatxa izaten, eta on-etarako alkohola laguntzaile ona da.

* * *

GAZTEAI TA ELDUAI

Baina gazteentzat dira bakan-ik jaiak? Zer eskeintzen jake sasoi-koie?.

Batez ere jai orreek udalarien en-ietakoak badira, Gorkiz, Bakio, Plentzia, Lekeitio,... Zer egoten da urte guztian baserrian edo itxasoak "ebagitzen" lan egiten dagozanentzat?

Konturatu zara, irakurle, zenbat sasoi-koie jende egoten dan jaiak ospatzen diren gunetan?.

Nik beintzat ez dot askorik ikusten, ete ez dot uste edadea dala eta ez daukenik jaietarako gogorik. Ez ete da aspertu egiten direla eskeintzen jakenagaz?.

Ez dot uste eskeintzak gogoko dabezenik, eta ez gizon-emakumeok ez dakielako zer dan alaitasuna eta "juerga". Eurak ere gazteak izan dira, alaiak eta burrukalariak (benetako bun-ukan bizia galtzeko arriskuan askotan jan-itakoak), presoen alde barik preso egonda-koak, andiko ikurriñaren menpetik urtetzeko emengoa lekurik gatxenetan eta sasorik gogon-enetan jan-i dabe, Euskal En-ia askatu-gurean euren gaztetasuna emon dabe. Eta ez dabe eurentzat ere zeozer egon daiten esku-biderik?

Enrike Itxasalde

ke, maila txikiagoan, baina. Naikoa izaten da 3 edota 4 graduko otzbero aldean izatea, etenbako aide jariora lortu daigun.

Eguraldi eguzkitsuetan, beroturako aidea basora eldukeran, ezotasunez bete oi da eta euria eragingo dau. Ondorioz, baso inguruetan zugatzbako lekuetan baino euri geiago eta sarriago egingo dau.

AIZEAREN ERAGINA:

Zugatz eta beroneen gerizpeen bidez, aizeak eta eguskiak eragindako lurrunketea neurri baten gitxiagotu leiteke, basoko lur azalean dabilen aidea gitxi igituen dalako. Ostera, zugatzbako tokietan, aizeak itzelezko lurrunketea sortuten dau, eta ondorioz, legortek agertuko dira. Geroago, aizeak autsedoiak sortuko dauz, lur kopuru aundiak aldean eroanez eta lur igadura sortuz.

Itsasaldeko are askodun aretzetan, aizea dala eta, aremuneak sortuten dira. Aizeak jo aalean, aremune oneek lekuz aldatuten asiko dira. Beroneek lotutea gatx-gatxa da.

Ekatx gogorra dagoanetan, aremuneok aurrera egingo dabe, lurrak, soloak eta etxaldeak, sarritan, lurperatu leikeezala.

Au gustiau galazoteko, bide bat besterik ez dago. Au da, aretan landatu leitekezan zugatzak sartutea. Sustarrek areari eusten deutsoe (batzuetan, sustarrek 30 metroko luzerea artu leikee).

Onetara, aizearen indarra makaldu egiten da eta lurraren ezotasunari eusten jako. Era berean, zugatzon artean areari eutsiko deutsoen landara barriak azi leitekez.


EURIA ETA EGUZKIAREN ERAGINA:

Basorik ezean, euria egiterakoan, berau artez-arteaz jausten da bearen ganera. Euriaren euriz, bearen ganean ur potxingoak sortuko dira eta urak nongura errekatutxuak egingo dauz, lur urtua aldean eroanez. Beeak, baina, ur gitxi xurgatu edo iruntsiko dau. Guzti onen ondorioz, ur zarramara aundiegiak lur igadura itzela sortuko dau.


Eguzkiak jotzen dauanean, baina, ura beangoan lurrunduten danez, lurraren ezotasuna arin amaituko da. Orduan, lur azpiko urak gorantza igongo dau eta ondorioz, lurra eta aidea bera be arin bai arin legortuko dira. Lur eremua edo basamortua sortuz.

Leku berean, ostera, zugatzak balegoz, beroneen orriek euriaren zatiren bat artuko leukee eta enparauko ura astiro-astiro bearen ganera jausiko litzake. Olan, zugatzon azpiko landarek jausitako ur geiena artuko leukee, ur gordekinaren antzera, lurra bera ezo itziz. Eguzki eginkeran, zugatzon sustarrek lurretik apurka-apurka ura artuko leukee eta ur ori, igonez, orrietaraino elduko litzake. Ur onen zati bat lurrundu egin eta aidera joango litzake. Inguruari ezo-ezo eutsiz. Esate baterako, 700.000 orriko aretx batek egunean 1.000 litro lurrin baino geiago bota daike aidera. Onetara, bada, lurra eta aidea beti ezo egongo litzakez, eta ez litzakez legortuko.

Lurrak biluzik dagozanean, ostera, lur igadura, aize eta urak sortuten dabe suntsiketean.



BASOA KENDU EZKERO LUR IGADUREA SORTZEN DA.



Basoak bearen ganeko ongarrirei eutsiko deutse, aize eta urak ongarriok beeko aldeko lurraldeetara (lautada, erreka, eta abarretara...) ez daiezan eroan.

Orain, basoa ebegi edo kendu ezkeru, bearen ganeko lurraren igadura asten da, denpora luza-luzean izan barik, asi be. Eta ondorioz, lur orretan ezin izango dogu ezer landatu.

Euri eginkeran, errekatxu eta ibaietako urek marroi margoa artuko leukee, lur eta ondakinak naastuta daroezalako. Ondakin oneek urtokietan batuko litzakez, apurka-apurka beteten joango dirala, urtokion betebearrak sostortu artean.

Urtokirik (zingirarik) egon ez arren, basoa bear-bearrezkoa da. Bera ezik, urek bertara erondako ondakinok ibai amaieraino eldu eta abereen eta landaren bizitza ito leikee. Basoak lurraren igadura eta suntsiketean saiestu daitez eta. (Arballo mendi-inguruetan, esate baterako).

Euriak eragindako lur igadura aundiak edo sakonak lurteak edo lurjausiak sortu leikez. Lur buztintsu eta hidrofiloz (bere barruan ur asko euki leikena, urtsua) osotutako mendi aldaztsuan, basoak, beean ur larregi sartutea galazoten dau.

Toki berean, baso bera kenduta, euri eginkeran lur buztintsu berealako baten urez beteko da. Eta ur larregiz betetako lurra aurbeeran joango litzake, laprast eginez, lurrei aurbeeran joan eraginik. Lur eta arriez sortutako multzo andiak mendian beera etorkeran, lurjausiak sortuten dabez, eta azken oneek beerantzako bidean idoroten dabezan larra, solo, bide eta etxeak lurperatu leikeez, kalte aundiak sortuz. (Bizkaiko mendi egal askotan ia urtero bideen ganera jausten diran lur moltzoak, eaaterako).

Beste batzuetan, euri parra-parra egiten dauanetan, uriolak egon ez daitez, basoak asko be asko lagundu leike.


IZADIA

Basoko lurrak, jausitako euri-ur geiena artuten dau. Au apurka-apurka lurrazpiko urak dagozan lekuetara igaroz doa. Basoak jagondako bearen ganea edo lur azala "humus" izeneko ongarriaz aberats baino aberatsagoa izango da. Euri egin ostean, jausitako ur kopuruaren zati bat errekaraino isuriko da, eta errekearen ur maileak neurrian eta astiro igongo dau. Legortetan be, basoko lurrak bere barruan gordeta dauazan ur gordakinak, lurrazpiko ur geruzetara igaroten jarraituko dau. Eta onen ondorioz, bada, errekearen ur maileak apurka-apurka jaisten asiko da.

Baina lur eremu izan ezkerro, arean da, baso bakoia, euri egitean, agirian dagoan bea berealan urez beteten aziko da eta jausitako ura, soster barik, errekarra jatsiko da. Euri ugari egin ondoren, errekearen ur maileak begitxidegi baten igongo dau, uriol arriskua aundiagotuz. (Gomutan izan azkenengo uriol aundi biak) Legortetan, oster, lurrazpiko uren maileak beerantz joango da eta ondorioz, iturriak ustuko dira eta errekearen ur maileak be, agiri-agirian beera egingo dau.

Edurtzetan, esate baterako, basobako lurraldea arin be arin estaldu leiteke edur moltzo aundiaz. Basodun lurraldeetan, barriz, edur geruza naiko meea izango da.

Udabarria eldukeran, zugatzbako bazterretan leenago asten da edurraren urtuketea, basodunetan baino. Azken oneetan, basodunetan, ain zuzen, urtutako ura erreka eta urtokietara apurka-apurka jaisten asiko danez, uriol arriskua txikia baino txikiagoa izango da.



LURRAZPIKO URAK:

Lurrazpiko urak aitatu doguzan ezkerro, basoko zugatzek lurrazpiko uraren igokerea ekidin leikee. Zugatzon sustarrek lurrean dagoan urari igon eragiten deutsoe, lurrazpiko ur maileari bardin-bardin eutsiz, lur buztintsuak izanda be. Zugatzok ebagi ezkerro, sustarrek eusten eben ura gorantza joango da berez, soster barik. Onen ondorioz, osinetan ur lodia agertuko da eta lurrazpiko ur maileak argiro be argiro ingongo dau.

Azaldutakoa, bada, gauza jakina eta agirikoa da.

Egia da, ingurugiroa jagoteko gauza andirik egiten ez doguna. Au esateko ez dogu ezelango goi mailako jakitunik izan bear. Ekologiaren aldekorik eza argi-argia da guregan. Arlo onetan ia dana daukagu egingai. Guretariko bakotxak zein erakundeek, Legearen egileen zein norberearen jardunekerearen aldetik.

Etorkizuna eboeagoa izango dalakoan...!

Iniaki MARTIARTU
1996.eko jorrrailan

BERBALAPIKOA:

ingurugiro = danon bizi-ingurua
birreskuratu = galdutako atzera irabazi.
jaretsi = lortu.
-eri eragon = -eri buruz berba egin.
eragile = faktore.
osogai = elementu.
eraginbide = prozesu.
arnasgai = oxlgeno.
xautu = gastatu, erabili.
ludi = mundu.
eragin = sortu.
legor = siku.
ozkirri = fresko.
ezo = umel, busti.
otzbero = tenperatura.
etenbako = lotubako, galdibako.
ezotasun = bustitasun, umeltasun.
igitu = mobidu.
lurrunketa = ura lurrun biurtukeran.
legorte = sikete.
igodura = erosino.
aretza = aritza (Bakion ta Bermeon), ondartz.
xurgatu = lurrak euri-ura bereganatukeran.
zarramarra = joan-etorri, zirkulazino.
gordekin = erreserba.
suntsiketa = zeozer laskitukeran, ondamen.
ongarri = lurra emonkor izan daiten botaten jakon satsa.
lautada = zabalgun, zelai laun-leuna.
urtoki = urgeldi, zingira.
sostortu = oztopatu, galazo.
saiestu = ekidin, galazo.
idoro = aurkitu.
geruza = estalki, azal, (edur geruza).
soster = oztopo.
ekidin = galazo, saiestu.
osin = putzu.
egingai = egiteko.
jardukera = jokabide, jokaera

OBETU DAGIGUN GURE EUSKERA (VI)

(DEKLINABIDEA)

"Edozein itz deklinatzen da euskeraz", dirausku Mikel Zarate izan zanak (G.B.) bere EUSKAL DEKLINABIDEA deritxan liburuan (Derio-Bilbao, 1975). "Aditza bera ere deklinatu egiten da euskeraz. Jokatu bakarrik ezeze, deklinatu ere bai, beste edozein itz egiten dan antzera". Begira: "ez nekian etorriko zenik"; "guk ere ez dogu or sartzetik ala?": "ezer ez dogu lortu ona etortzeAZ . eta abar.

"Atzizkiak aldatu arren. itza bera ez da aldatzen euskal deklinabidean. Itza osorik erabiltzen da. Ara, argibidez, adibide batzuk: **andra, andraK, andraRI, andraREN; ur, urA, urIK, urEZ, urETAN. urETATIK; Ander, AnderrI, AnderrEN, AderrEKIN.** Atzizkiak aldatu arren, **andra, ur, Ander** ez dira aldatu. Atzizkirik gabeko itza bera, itz soila, zein dan jakitea konbeni da, ba. orrexegaitik, deklinabide atzizkiak egokiro erabilteko. —A itsatsia daben itzetan ibili bear da kontuz. batez ere. au da,—A batez amaitzen diran itzetan. Añin zuzen ere. "ez dot ikusi zure amlK", "neskatIL bat", "ikastOL ederra", "izkunTZ guztiak", "gaztaiN batuzk". "erioTZ larria", "elelZ aurrean". "burdIN lodia", "Jesusen jaiotZ pozgarria". "arnAS sakona" eta olakoak esaten eta idazten ditugu "ez dot ikusi zure amaRIK", "neskatilla bat", "ikastolA ederra", "izkuntZA guztiak", "gaztaiñA batzuk", "eriotZA larria". "eleizA aurrea" "burdiñA iodia", "Jesusen jaiotZA pozgarria", "arnasA sakona" esan eta idatzi bearrean" (13 on-).

Deklinabidekera mugagabea edo zeaztugabea.

Euskal deklinabidekera **irukoitza** dala diñoe gramatikalarri batzuk: mugagabea, mugatu singularra eta mugatu plurala. Mikel Zaratek, ostera. euskal deklinabidekera **bat bakarria** dala dirakusku: **mugagabea** edo

zeaztugabea. "Izan ere. **zeaztua, mugatua, ezaguna** deritxogun deklinabidekera (gauza bardin bat esateko iru izen desbardin) izenordeen deklinatze bat baiño ez da. Atzizki biurtu diran izenordeen deklinatzea baiño besterik ez da **deklinabide zeaztua** deritxoguna... Deklinabide zeaztua esaten jakonak deklinabidekera itxura artu dau gaur. Baiña antxiña ez zan olan izan. Gaurko **gizona**, esate baterako, **gizon** a "aqueel hombre" izan zan, au da. izen lagun bezela erabiltzen zan a ori".

"Jakiña: itzekaz alkatuturik erabiliaren erabili, galdu egin eben euren nortasuna izenordeek, eta atzizki biurtu ziran: **gizon a = gizona, gizon ak = gizonak, gizon ari = gizonari, gizon aren = gizonaren, gizon agaz = gizonagaz, gizon ok = gizonok,** eta abar. Berez, jatorriz, ba, deklinabide eta deklinabidekera bat bakarria dau euskarak" (15 orr.).

Españolez **zeaztugabez** erabiltzen diran itz batzuk **zeazturik** erabiltzen dira euskeraz. Ona euren zeintzuk diran (batzuk bakarrik dakardaz): **1) Izenburuztat erabiltzen diren itzak: IYzaurrea "prologo" bigarren zatia, "segunda parte"... 2) Oiu-itzak: Ze(r) ederra! "iqu hermoso!". 3) Bokatibu edo dei-itzak: Erruki. Jauna! 4) Norbaiten edo zerbaiten izantasa adierazten daben itzak: "soy maestro", irakaslea naz. 5) Persona-izenlagunaren ondoren doazen itzak: gure etxea ortxe dago.** Eta abar. (24 eta 25 orr.).

Mikel Zarateren liburitik artu dodaz zatiok. Eta edonorentzat mesegarri izan daitekezela uste dot.

Jardukizun antzeko zerbait egin dagigun. irakurleentzat argigarri izan daiten.

	OKER	ZUZEN
Literatura	Elerti	Elertia
Historia	Edesti	Edestia
Cuarta parte	Laugarren zati	Laugarren zatia
Camino	Bide	Bidea
Esta es nuestra casa	Etxe au gure da	Etxe au gurea da
i De qu pueblo hab is venido?	Zein erititik etorri zarete'?	Zein erititik etorri zarete?
Dc cualquier sitio	Edozein lekutik	Edozein lekutatik
SEn qu libreria hab is comprado estos libros'?	Zein liburu-dendan erosi dozuz liburuok'?	Zein liburu-dendatan erosi dozuz liburuok?
i Por cual camino hab is venido?	Zein bidetik etorri zarete?	Zein bedetik etorri zarete?
A cual easa han ido?	Zein etxera joan dira?	Zein etxetara joan dira?
Han venido cinco jovencitas	Bost neskatil etorri dira	Bost neskaitilla etorri dira
Todas las lenguas son buenas	Izkuntz guztiak onak dira	Izkuntza guztiak onak dira
i Donde has dejado tu dinero?	Nun itxi dozu zure diru?	Nun itxi dozu zure dirua?
Ha tenido mala muerte	Eriotz larria izan dau	Eriotza larria izan dau
Tiene respiracion profunda	Arnas sakona dauko	Arnasa sakona dauko
SEn qu iglesia has estado?	Zein elizan izan zara?	Zein elizatan izan zara?
El es maestro y yo discipulo	Bera maixu da eta ni ikasle	Bera maixua da eta ni ikaslea
i Es primo tuyo?	Zure lengusu da'?	Zure lengusua da'?
SEn qu raisa estuvo ayer tu madre?	Zein mezan egon zan atzo zure ama?	Zein meztan izan zan atzo zure ama?
En raisa de las seis de la tarde	Seiretako meztan	Seiretako mezan
Ha venido a trav s de cualquier monte	Edozein mendian zear etorri da	Edozein mendian zear etorri da
i Qu hermosa es esta flor!	Zein eder da lora au!	Zer ederra da lora au!
Ese es nuestro pueblo	Auxe da gure erri	Auxe da gure erria
Soy alealde de este pueblo	Erri onetako alkate naz	Erri onetako alkatea naz
~En cual casa vives?	Zein etxean bizi zara?	Zein etxetan bizi zara?
A qu idiomas has traducido estos libros?	Zein izkuntzara itzuli dozuz liburuok?	Zein izkuntzataraz itzuli dozuz liburuok?
A nuestro idioma	Geure izkuntzataraz	Geure izkuntzara
Somos cinco hermanos	Bost anai gara	Bost anaia gara
Le han dado pena de muerte	Eriotz-zigorra emon dautsoe	Eriotza-zigorre emon dautsoe

Ikusten dogunez, deklinabidea sustraiz jakitea bear-bearrezkoa da euskeraz ondo itz egiteko eta idazteko. Orretarako Mikel Zarateren aitaturiko liburua egoki-egokia da, eta, gaiñera, bizkaiera eder-ederrean idatzirikoa.

AGIRREGABIRIA

NEGAR EGITEN EBAN KOMIKOA

(4n. SARIA)

Bazan mutiko txiker bat, Euskalerriko edozein txokotako baserri baten jaiotako bizi zana. Izena Mikel eban, eta oso zalea zan aitona-amonak kontetan ebezan ipuiñak eta gertaerak arretaz entzuten, eta lantzean bertso bat edo beste ere, entzun eta abesten ebazan aitona eta aitarekin, familiako danak elkartuta maian egoten ziranean.

Sasoi artan ez ziran ume danak eskolara joaten, alde batetik baserrian bear pillo bat eukelako eta beste alde batetik gurasoek ez ebelako pentsetan euren semiak ikasketarik bearko ebenik.

Ostera gure Mikelek, bere osaba-praile bitartez, ikasketa ederrak jaso ebazan, ez eban karrerarik egin, baiña ederto baten irakurten eta idazten ikasi eban.

Gaur idazten eta irakurten edonork daki, baiña leen oriekianak itzelezko meritua eukon.

Urteak aurrera pasa aala, gure Mikel bakarrik gelditu zan. Bere gurasoek il egin ziran eta neba-arrebak eskondu.

Ala eta guztiz ere, ez zan txarto ibili, bere izekoak erropak eta etxea garbitzen eutsozan-eta.

Berrogetazak urtiak izan arren, bapateko bertsolaritza sartu zan bete-betean, lenengo Gipuzkoako plazatan eta geroxeago Euskalerrikoetan, orduko punta-puntako bertsolari guztiekaz plazarik geienetan bertso-kantari ibiliz: Joxe Lizaso. Uztapide, Basarri, Lasarte. Txomin Garmendia, Xalbador, Mattin eta beste askorekin.

Jendiak asko maite eban. Makiña bat afaritan batek baiño giagok egin eban pozaren-pozaz negar eta tristuraz sotin.

Berak gogokoen ebazan bertsoak, bertso sentikorak eta esanguratsuak ziran, bertso barregarriekaz obeto kontzen zala jendiak uste arren, baiña ori ez zan egia.

Erririk-erri motor zaar bategaz ibiltzen zan, eta baten baiño sarriago eduki eban abenturaren bat motor zaar aregaz. Arranka eziñik gelditu edo atzean zereman laguna bidean galtzea esaterako, eta iñoiz iñori kontu ez eutsozan bete milla pasarte izango ziran.

Bera oso umilla zan eta iñoiz ez eban gura izan ospetsu izaterik, naiz-eta orretarako bein baiño geiagotan motiboak izan. Adibidez: Euskalerriko Bertsolari Txapelketa Nagusian bigarren gelditu zanean. Ez jakon argazkirik ataratare gustetan, ez eta beragatik luzero berba egitea ere.

Bertsolari trebea izan arren, txisteak eta pasadizoak ederto kontetan ebazan, bere aitona-amonengandik jaso ote

eban orretarako maisutasuna?. Ez dakigu. Dakiguna zera da: Itzelezko irudimena eukola, lantzean beiñean berak kontatutako pasarte edo txiste batzuk asmatzeko ere.

Sentimenduzko bertsoak abesten ebazanean, begiak ñir-ñir egiten eutson eta entzuleari uleak tente jartzen jakozan.

Lanean ofizio asko pasatu ebazan, baiña ez zan ondo moldatu baten ere. Egia ete da, bertsolariak lanerako betarik ez daukela?.

Esaterako, Txirritak ez. Uste dot beintzat.

Sentimenduzko bertsoak abesteko, lotsarik eta trabarik ez da arean bere bear.

Ori sarritan lortzen zan eta oraindik lortzen da; alkola edan eta puntutxo batera elduta. Urrengo goizean eupelako buruko-miña izan arren.

Zenbat bider, Milelek barre eragingo eutson jende askori?

Jendeak momentu artan euren miñak eta poztasunak aaztuz. Berak ordea danen aurrean arpegi alaia imiñi arren, andik negar baten aldentzen zan sarri.

Jaungoikoak daki bakarrik zenbat bider.

Mikel oso pertsona sentibera zan. Jendeak oso komiko ontazat artu arren, askok zirkuko pailaso edo gorteko bufoitzat artu arren.

Baiña ez dauko lebarik, sarritan, bakarrik eta suntzituta egon arren, bertsoak ziran bere kontsolamendu eta itxaropen bakarrik, bertsoak soilik.

Egunero, egunsenti barriarekin pilak kargaturik irartzartzen zan, pozik edo erdi-pozik eta itxaropentsu.

Zeozer pasatu bear ebanaren susmoa eukon, gaua eldu eta ezer berezirik ez zala pasatu igertan zauan arte.

Gabonetan eta momentu berezietan, lagunekaz egon eta etxera joateko ordua elduten zanean, berak bazekien bere lagun aiek, etxera joan eta famili bat eukela zain, etxeko epeltasunean, berotasunean. Berak ordea, ez.

Etxea utsik egoan, bekosua amateuta eta etxe guztian zear iraganeko mamuak ujuka.

Bertso batzuk aizetara jaurtiz eta utsari begira igaroten ebazan orduak. Bere burua "piloto automatikoa" emonda eukola.

Bere buruan aspaldi emakume baten irudia eukon, ez zan aragi eta ezurrezko emakume arrunt bat, asmatutako pertsona bat zan. Dizdiratsua, eta maitekorra.

B IZKAITARRAI B IZKAIERAZ

Berari begietara begira egon ezker, oso lasai eta airean, egaz bezala sentitzen zifan.

Beste artista batzuk: "musa" edo "amor platoniko" esaten dautsoe. Eta nork daki ori?.

Dana-dala amets ori sarri errepikatuaren, urrengo goizean ezer pasatu ez balitz bezala, egon bear eban Mikelek jende aurrean, bizimodua antzeztuz.

Pozik bizi denaren itxurakeriak aalik eta ondoen antzeztuz.

Irurogeita zazpi urtegaz pertsona ez da zarra, baiña egon liteke oso, oso nekatuta, are geiago bizitzak berak emon dautson tratua kontutan artuta.

Danok dakizue kontakizun au norengan oiñarriturik idatzi dodan.

Ez noa geiago ezer esatera, bakoitzak bere kontuak atara dagizala!

I

Ipuin ontako pertsonaia zan
sortzez Lazkao-mendikoa.
Euskalerriko bertsolaritzan
kategori andikoa.
Goraipatzeko ez du faltatuko
egundo-be meritoa.

Bera genduen negar egiñez
pozik zegon komikoa.

II

Pare bat urte pasatu dira
eta nai nuke gogora.
Sarri askotan umore onez
joaten zan edonora.
Bere bertsoek eta txisteeek
euskera jaso eben gora.
Ta bake bada zeruan ere
bertsotan ibiliko da.

III

Beti izan zan gizon ona ta
biotza eukon xamurra.
Koittedu antza eduki arren
beti arrazoi zuurra.
Alde batera lagaten eban
min egiteko guzurra.
Bertso bategaz osotu eban
bere azkenengo agurra.

Bertsolari zarra

LEGARRETA'tar ASIER

EUSKERAZAINTZA'GAZ ERRIOXA'RA

Errioxa maite dogu:

- Euskalerrria izana
- Ango Donemiliane'n idatzi ziran lenengo esaldiak euskeraz.
- Giro ona ta arda gozoa.

Euskerazaintza Errioxa'ra:

- Iraillean errioxa'ra txangoa egingo dau Euskerazaintza'k, 28'an.
- Donemiliane goikoa ta bekoa ikertuko doguz.
- Gero Kañas'eko lekaide-etxera joango gara.
- Senitarteko bazkaria ango jatetxe baten.

Deia:

- Euskerazale guztiai dei egiten jake txango onetara.
Zeaztasun eta jakingarri geiago "ZER"en urrengo zenbakian.

Euskerazaintza'ren izenean

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'K ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza esku-ratzeko erea. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA 'ren izena ipiñi ta 2.000 pezeta dirala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colon de Larreategi, 14, 2º, eskoia. 48001 BILBAO.

Eskerrik asko urtero zintzo-zintzo ordaintzen dozuen guztioi.

TOBIAS KAPELADUNA

(3n. SARIA)

Tobias kapeladuna, Euskalerrian azken urteetan eza-gutu izan diran kanpotar inguru-zaindariatako bat izan zan.

Itxas ertzeko erri polit eta kresal usaindun baten egoan.

Gizon andi soñez, zarkar eta traketza egituretan... eta etxea zaindu eta bere gurariei eusteko, azkena nekez elduten jakona.

Errian, eguneroko goraberetan, bera egoan taldeak, aldi aretan, lau gizonak gaur ogeirek baño bildur geiago sortzen eben egunetan egon zan ain zuzen Akillape erritxoan.

Aldi aretan, itxasertzeko erriak bizitasun berezi bat artzen eben antxoa sasoiari.

Antxoa lez ezagutzen dan arraiñari al dala egunean bertan gazitu, burua kendu, eta latetan edo upeletan gorde bear izaten da, ez edozelan, banan banan ondo "empakatuta" baño, bestela erbestera bialtzeko azala be galtzen dabelako eta balioa erraz galdu.

Antxoak erri guztiari lana emoten eutsan: ume, andre, zar-saritu eta abarrei kabanetan (fabriketan). Bai eta mutil, gizon eta andre be, txalopetan, ama zar eta agure-tutako eta ezin kaleratutako gizonak bakarrik etxeetan gelditzen zirala, eurak be aalik ez eukelako.

Antxoa arrantzu egunetan, saretako arrantza eran ba zan, lenengo gau osoa itxasoan igaroten eben txalopak sareak zabaldua, goizaldetan jaso eta gero portura etorri eta arrain ori saldu aurretik sareko malletatik bana-banaka atera bear, (errian despika deitzen eutsen zeregin one-ri) maluska barik, apurtu barik, alik eta bizien, Arrantzal-ien Kofradian edo benta-etxian arraiña saltzean, alik eta sal-ordaiñik onena lortzeko.

Orretarako, bear aña edo komeni bestean lanerako eskurik gure erritxoetan batzen ez zanez, España zear ezagutzen ziran ijito familiarik geienak urreratzen ziran itxas ertzera. Orrela, esateko, Santoña, Colindres eta Laredo inguruetan, ille bi ingurutan bertan biziten lagaten eutsen, baño udarako ospa bialdu andik.

Bermeo, Lekeitio eta Ondarroa'n, nai eta erri egale-tan kokatuta biziten lagaten eutsen. Ori bai, kontuz ibil-tzeko zemaiekaz. Eta bardintsu Mutriku, Getari, Orio aldetan.

Baña ijitoei edo motxallei kontuz ibilteko eskatzea, itargiari il goran adarretatik eutsita dindilizka lez ibiltea baño entzungogorrigo zan.

Jakiña, gizartetik kanpora bizi diran ibiltari oneik, buruauste asko emoten eutsen erritarrei; bear ba da

euren erru andi barik, eurak be gizartean biziteko dauken eskubidearen garrez.

Orrelako zerbait jazoten zan Akillape 'n be.

Tobias izentatuta euken bere taldekideak ijitoei lot-sa sartzeko eta batez be bein illundu ezkerro errian zear ibilten ez lagateko. Eta ori erriko dendarien eten-bako eskabide biurtzen zan, bein illundu ezkerro, eta kabanetatik urten, gona andi eta kolore bizidun ijiteme andra orreik, euren jantzi eta soñetako kedar usain eta fabriketako arrain usaiñez giroa be aldatzen ebelako, saldretan dendetan sartzan ziranean, eta dendariari sortzen eutsen bildurragaz, gizajoa zer eginten eban be ez ekiala lagaten ebenean, denda egaletan banatu eta erakusgai eukazan janari nai beste salgaiak ezin zain-duta.

Gauza guztietan lez, ba egozan euren artean gizarte-ra egiñagoak, ikasiagoak, batez be urietan bizitera oitu-ta egozanak, baño beste asko, dendari baten esanetan, inpernuetako deabruak baño be faltsu, maltzur, atzipe-lari eta lapurragoak ziralako, amantal eta gonetan, me-troak aña sakel, toxa eta eskuta zorroak euki eta erabil-ten zituelako.

Eta dendariak, barruko egalen baten eukazan salgaiak zertzuk ziran bigarren egunerako jakiteko nortasuna eukenez, dendaria bakarrik ba egoan, eta esanaren esa-nez alako gaikien baten billa barrura joatera makurtzen ba zan... agur aren irabaziak!

Dana dala, Tobias urreratzen ikusten ebenean, laster sakabanatuten ziran, baño ez aldretan, banaka baño, eta zerka, etxarte, kantoi eta bide-kurutze eta abarretatik berangandik laster iges edo eskutatatu.

Baña Tobias 'en "zeregiña" eta atsegin ebana, gizonak zaintzea zan.

Errietako baster unetan ba dakie edaritegi eta taber-nak egorten eta Akillape'n be ba egoan orrelako bat.

Eta Tobias ez zan bertara urreratzen gizonak ardaua-gaz patxadan jarri arte eta beti be tabernan igarri barik, bat batean sartzeko eran baño.

Orrelakoetan, bere agurra zelakoa izango zan ba ekien lez, andik arin ospa egiteko zemai eta abarrekaz, laster asten jakozan erruki eske lez, egun guztien lanian ibili eta eurak eskubiderik ez ete euken eta antzerako koplekaz ordu laudenen bat irabazten eben ase arte eta bein orretara elduta, ijitoen artean egoten ziran zar bi edo iru izaten ziran kapeladunari ederkatura egiñaz, bes-teei etxerako bidean oraindik euken zuloen baten sartzeko aukera billatzen eutsenak, Tobias'eri berak gura eban

kopatxoen bat atara eta taberna aretako egoera ia "balzitu" arte luzatu eragiñaz.

Ori bai, Arnasa bera be guzurragaz erreten eukiarren, ez ebalai nai, eta ez atarateko eskatzen eutsan tabernariari, baña onek zirikalari, jaramonik ez eta pixkabategaitik artuko ebalai, ta kopea betien-bete ataraten eutsan Tobias'eri eta une bardiñean an egozan beste ijito bie.

Azkenean abestuten asten ziran alkarren leian abesti gangar batzuk, ori bai, Tobias'ek barrutik ateari bultzada bat emonda, kanpotik iñok oartu ez egiazan.

Gero, berezko oituraz, Tobias asarretu egiten zan eta zentellaka asi, berandu zala, ordua zala, geiago ezin eikeala eta andik urteteko zital agintzen ijito lagunei, eta bera joaten zan euren atzetik, bere zeregiña beteten ebi-lala erakutsi nairik.

Orrelakoetan batzutan kapea, bestetan beste zerbaiz astuta lagaten eban Tobias'ek. Tabernariak ba ekian azken dsangana egiteko aitzakia izaten zala, ijitoak kiñu eginda tabernariari ordainduta lagaten ekielako.

Baña egun baten Tobias zurbil biurtu zan, ijotoei lagundu ondoren. Pistolaren utsunea artuta etorran.

Tabernan sartu eta mai inguru eta azpietara begira asi zan. Gero zokonduek. Larritzen asi zan.

Tabernaria adarra jo nairik asi zan, zirikalari zan-eta. Baña Tobias ez egoan orretarako. Zaindari batek bere izkillua galtzea, taldetik kanpora bialtzeko bidea zan. Berotu zan. Basterrak aztertu zitun, gero ta estuago.

Ba noa, esan eutsan tanernariari. Eta konponduko naz paperak egiten.

Tabernaria bildurtu zan. Tobias'ek andik urtenaz batera, bere atzetik deika asi eta tabernara biurtu eragin eutsan.

Tobias'ek bereala: Benetan, Txomin. Ni ezin nei joan Zaindetxera pistola barik, bestela illunpean egun asko igaro ondoren, kalean ogibiderik barik lagako nabelako.

Eta tabernariak ekin: Ikusi dozuz zeuk ondo basterrak?

—Izarrak be ikusten nabil.

—Zaragiak dagozan egala ikusi dozu?

Eta ekin barriri, mai-azpi, egal, bitarte eta abar azkertzen.

Txomin tabernaria, bitartean, komunera joan zan. Komuneko zuloan paper multso bat sartu eban eta ara jaurti pistola zuloan bera ez galtzeko eran.

Eta barriri Tobias'en ondora urreratu, pistola billatzen laguntzen eutsan itxurak berari agertuaz, eta onela itaunka jardun:

Benetan be ekarri dozu gaur pistolarik?

—Zelan urtengo nitzan zerbitzuan pistola barik?

—Iñoiz gertatu lei...

—Pentsatu be ez orrelakorik.

—Eta ziur zagoz onera ekarri dozula?

—Egongo ez naz ba?

—Emen... Arrigarri da. Eskatzera joan zara?

—Ez. Zegaitik diñozu ori?

—Iñoiz ba dakizu etxekotasunez ogi koskorren baten billa joaten. Baña komunera joan zara. An begiratu dozu?

—Izan naz. Begiratu be egin dot.

—Iñok ostu ba dautzu, bear ba da, komuneko bonbaren ur-tokian eskutau be egiten dabe orrelakoak. Ijito orreik zenbat dakien iñok ez daki.

—Orrelakorik ba litz, biar kaboaren aurrean...

—Kaboaren aurrean? Ez zara konturatzen orregaz zeure burua salatzen dozunik?

Nik baño burua argiengo daukazu, euki be, Txomin.

Orrelako jardunak gero ta keskatiago eta itsuago lagaten eben Tobias.

Joan zan komunera ta bonbako kateari ten egin? eutsan. Ta ura jaustean, an asi zan pistola bolo-boloks zuloako paper artean.

Tabernari! Txomin! Emen dago, emen dago! deika asi zan.

Atara eban zulutik eta aren nasaitasunal.

—Zeuri jausi jatzu?, zirikatu eban Txomin'ek

—Atara egizu kopa bat, larrialdia baretzeko be.

Baretzen asi zanean, tabernariak:

—Pistola ederra daukazu.

—Atsegin? Salduko dautzut.

—Eta gero?

—Tratua egingo dogu. Au ez, baña biar zaingoan artuko dot besteren batena ta or konpon. Ekatzuz amar duro, illaren azkenean konponduko gara.

—Pistoleagaitik?

—Ez, pistolarena biar egingo dogu...

Eta biaramonean an joan zan Tobias betiko orduan tabernara. Eskutuan tabernariari pistola bat erakutsi eutsan... baña onek ez eutsan artu. Bera bildurtu egin zala pistola eukiten eta abar aitzakituz. Izerditan jarri zan.

Tobias'ek familiko premiñak eta abar agertu eutsazan. Eta barriri eskatu beste amar ogerleko illaren azkenerarte.

Tabernariak ordurarteko oitura zala-ta emon eutsazan diruak eta esan: Zu eta ni ulertuko gara Tobias. Ekatzu bostekua. Gizonen eskutukoak dira oneik!

Tobias'ek jakin ba leu lapurtxo zirikalaria nor zan...

Augustin Zubikarai



AUTESKUNDEAK DIRALA-TA

BEROTZEN

Epaillaren 3gn. egunean Espaiñar-Legebiltzarrerako egin-dako auteskundeak, nabari zan burruka gorria ta kezkatu bat izango zala.

Aurreko lege-aldian izandako ainbeste ustelkeri (Filesa, Mariano Rubio, Roldan... arazo zikiñak) eta onezaz gaiñera barriz sortu izan ziran ETA ta GAL auziak, izugarrizko salatze ta epeketak gert-arazi ebezan.

Nekezko ta illun giro ontan, Jaurlaritzan egozan goi-maillako agintari banaka batzuk naspilduta diralarik, batak bes-teari errua ta legeausteak leporatzen eztabaida lotsagarri baten ari ziran, giroa geroago ta geiago gaizkituz.

PP alderdiak, eta batez be bere burua dan Aznar jaunak, aurreko auteskundetari lortutako emaitzak dirala-ta berotu ta adoretu ebiltzan. Aut-aldia asi baiño lenago jo-ta-ke ekin ziran auteskundeak aurreratatu bear dirala ta erdeñez dearka esaten: Gonzalez jaunak: joan zaitez!

IRAIÑAK

Oraingo auteskundiak asitakoan, oi dan bezela, alderdi guztiak adoretu ari eben baster guztietatik euren zabalkundea. Lelengotik PP'koak baikor eta arro, irabazle bezela, agertu ziran. Izan be, iritz-azaltze guztiak eta baita erri-iritzia ororen be bat etortzan.

Alde gustietatik baikortasuna ta espaiñar ikurriñak bete-betean eragitan ta txaloka telebisiotik, nun-nai, ikusi al genduzan. Alderdi onen aut-aldia ospatsu ta gareztieta izan dalakoan nago. Egunkarietan irakurri ta itzaldietan entzun al izan genduan Txindi-Etxe edo Banku batenbateko laguntza ebilla-la atzetik bultzaka.

Olakoetan, gogo berotu ta biotz-ikaratuta dagonean, iño-lako begiramen barik esatekoak esaten dira ta ori jazo da oraingoan be.

Len entzun ba-gendun Gonzalez jaunari egiñiko eupada jaurlaritzatik joan daitela erdeñuz eskatzen, baita bein ta barriro entzun bear izan doguz alderdi abertzalei esandako astokeriak. Aznar jaunak berberak, iñor aitatu barik baiña, argi ta garbi, Arzalluz jaunak ta EAJ'ri adierazi naian, olako batean, "**abertzale baiño lenago erri-zale edo demokrata izan bear da...**", auzarki esan eban.

Guzurra ematen dau! Baiña, esanak esan, Franco'ren orde-zkoak iñun ba'dira PP'an dagoz. Aznar'ek zorarazita, or ibili da erriz-erri autarkiak eskatzen Jaurlaritzan "**gogor bat eukiteko Espaiña gogor bat egiteko**". Lepoan larogei urte baiño gaigo daroaguzanok, ondo dakigu itz oneik esan gura dabena.

Katalandarrak be eurenak entzun bear izan dabez. Danok izan dogu aukera, telebisio bidez, euren izkuntza ta lendakari dan Pujol jaunaganako irri ta destaiña, onela edo bestelako leloa deadarka erabilliz: "**Pujol, enano, habla castellano...**".

KUTXETARA

Baiña arrokeriaren aldia arin igesi ta Epaillaren 3gn, egia-ren eguna, eldu jakun.

Orain arte iritz-azaltze edo inkestak izan dira guztiori zale-arazi ta arduratu gaituenok; eta oneik beti PP garailletzat agertu dauskuen ezkerero, giro ontan Aznar jaunak ta bere jarraitza-leak oso baikor eta pozik ebiltzan, espaiñar ikurriñak eten barik eragiten jarraituz.

Izan be, PP'ek ez dauku egitarau onezgarri ta gogozko bat erakutsi, auteskundeak irabazteko gai izan leitekenik. Asieran aitatu doguzan ustelkeri, uts eta legeausteak (PSOE ondamen-dira eroan dabena) PP'ren merezimendu edo sarigarri aundienak, eta ez bestelakoak, izan dira. Erriak, au dana ikusirik PSOE, zigortu gura izan dau, beste alderdiko agintariak auke-ratuz.

Autarki-zenbaketa ekin eta bereala, PP'ren jarraitza-leak poz-pozik agertzen ziran, geiengo osoko garaipena ziur izan-go dalakoan: Ango zoramenal.

Baiña bein-beiñeko emaitzak argitaratzen asi ziran eta, barriak-etorriaz, berotasuna geiago ta epelago...

ZENBAKETA LARRIA

Oi dan bezela, alderdi bakoitza bere arrazoibide eta gogo-keta arabereaz danok, norabait, irazazi eben.

Urrengo egunean, adorea ondo baretutakoan eta bein-beti-ko emaitzak beren zertzelada guztiagaz zeatz-meatz ezagutu-rik, egia utsa, dan bezela onartu ta sortu dan egoera barrian, alderdi guztiak jokatu bearko dabe.

PP'ren ameskeriak bete ez ziran ezkerero, len autatutako Jaurlaritzan ta Espaiña gogorak ez dira izango erre-z egitea, geiengo osoa (ogiren bat ordezkari ezean) urrin geratu jakon-ta.

Beraz, baste alderdi artean billatu bear izan dau laguntza. Ezker alderdiagaz itundu eziñezko dala, ta auteskunde barriak egiteari buruz Aznar'en asmoa aurkako zan ezkerero... Ara nun sortu zan binperrezko zori edo egoera bat!: Ain iraindu izan ziran alderdi abertzaleak bakarrik egozan gerturik PP'ri bear eban laguntza emoteko.

APAL ETA BILLA

Aukera ona eta egokia Aznar jaunak alderdi abertzalei esan-niko itz negargarri jan eta, arremanak asi baiño lenago, burua zuritzeko.

CiU, EAJ eta CC izan ziran alderdi abertzale ezinbesteko dan laguntasuna, PP'ri eskaiñi eutsoenak.

EAJ eta PP alkarren artean egin zan itzarmenaren auzi garrantziena Gernika'ko Araudi edo Estatutua osatzea dogu. Ez da asko eskatzea; amabost urte dirala onartutako lege bat betetzea baiño ez da.

Oraingo PP'ren jarrera naiko onesgarria delakoan nago. Anasagasti k, itzarmenari buruz, eresi edo musikea ona dala iñoan, baiña... gero gerokoak: Dantzaldia nolakoa dan ikusi bear.

EUSKEREAREN NORMALIZAZINORAKO PLANGINTZEA BAKION

BERMEO, ERRI EUSKALDUNEAN SARTUTEN ZARA!!

Zuk, Bakioko irakurle, Bermeorantzako bidean, Urizarreta inguruan, bide ertzean dagoan iragarko ori aibat bider ikusiko zenduan.

— Ta, kontxo! Bermeotarrok alakook! Nondik nator ni, bada? —esan go leuke bakiotar euskaldun-euskaldun dan edozeinek.

Bakiotik Bermeora joanckeran, bakarrik, euskaldunen Errian sartuko bagintzaz lez!

Ez leuke inoren arridurarako onek izan bear. Bermeotarrok euskaldun izateko gogoia iragarkietan ezeze, gauzak egiterakoan be argi-argi itzi dabe eta. Bermeotarrok euren euskal nortasunari, euskaldun izateari eta euskeraz biziteko gurariari sendo ta errime eusten deuseelako. Eta gurean, zer?

Ez leuke inork gauza barririk esango, Bakion euskerearen egoerea gero eta txarragora doala esango bagendu. Aaleginak aalegin. Danok, euskaldunok zein erdal-dunok, asmatu geinken gauza nabaria da. Baina, au nori deutso ardura?

BA, NIRI NEURI, BAI! Eta auxe berau da idazki onen zergaitia.

Euskerea Bakion egoera negargarrian dago, nire eritxiz. Espainako erderearen menpean bizi da, atxilotuta balego lez. Erdereak arnasea eta bizia kendu gurarik bizi da. Sasoi da, jagokon lekua eta duintasuna emon daioguzan. Kanean zein familian, administrazioan zein eskolan.

Euskaldunok Bakion, denpora guztian, erriko edozein tokitan euzkeraz biziteko aalmena euki gura eta eskatuten dogu. Beste edozein izkuntzatan egitera bear-tuta egon barik.

EUSKERAZ ETA KITTU!

Eta au egia bihurtuteko bideak bear doguz.

Biderik zentzuzko eta bearrezkoena euskerearen aldeko NORMALIZAZINO PLANGINTZEA egitea eta aurrera ataratea da. Bear luzea eta erronka aundia izango da. Bai! Baina, egin egin bearrekoa.

Bizitzaren arlo guztietan, bai agoz bai idatziz, ezertariko soster barik erabilten dan izkintzeari NORMAL-DUA esaten jako.

Edozeri buruz berba egiteko, edozer adierazoteko normal-normal erabilten danari, ain zuzen.

Elburu ngusi garbia, bada:

BAKIO %100ean EUSKALDUN-EUSKALDUN IZAN DAITEN!

Elburu onetara elduteko plangintza onek urrengo baldintzak bete bearke leukez:

- egoki eta zeatza
- erriko egoera soziolinguistikoa gogoan artukoa
- zabala eta alor guztietarako
- erri mailakoa
- denporan iraunkorra
- erritarrek oneritxi eta eskuartua

— udalak bultzatu eta babestua

— erabagiorrak diran arloei leentasuna emotekoa

Plangintza onek orain bizirik dagoanari eutsi bear deutso eta, bide batez, bizitzea guztiz euskaldunago bihurtuten lagundu bear deusku. Azken baten, benetako IZKUNTZA POLITIKA eraginkorra indarrean jartea giltza dogu. Bakion Bakiorakoa.

Adostasunik zabalenean oinarrituta, erritarren eta erriko erakundeen eskuartzerik andiena da, egitasmo au azurmaminduko leiken bakarra.

Izkuntza plangintza edota politika onek euskerearen ereabilerea bultzatu bear dau. Olantxe:

- euskerearen oiko erahilera eremuak sendotuz
- euskerearen igorpena ondorengoentzako bermatuz
- euskerearentzako berbadun barriak irabaziz
- euskerearentzako erebilera eremu barriak irabaziz

Au da, euskerea arlo nai maila eta era guztietan —zein agoz zein idatziz— gero eta geiago erabiltea.

Adostu edo onartuko dan izkuntza politikea aurrera eroateko bada, bearrezkoa da diru-aurrekontua aurreikustea. Edozein izkuntza politika ezin leiteke sustatu, atzean bitarteko edo eskuarte ekonomikorik ez badauka.

Agintariek, euskalduntze garabidearentzako galga izan barik eragile bear dabe izan. Kanpora nai barrura begira. Udalak euskerearen normalkuntza bidean dauan garrantzi beren-beregizkoa azpimarragarria da. Ezin onartuko izango litzake, onelango izkuntza plangintzaren bat erdikinetan egingo bagendu. Arazoari dauan garrantzi aundia emon eta jaramon egin bear jako. Borondate ona ekintza biurtu. Udalarengandik konpromizu zeatz eta benetakoak argi be argi egon bear dau.

Udalerrri mailan, euskerek gune guztiz euskaldunak bear dauz, sare eta zerbitzu sozial guztiz euskaldunekaz. Eta udalak onetarako,

- euskalduntasun instituzionalaren irudia emon bear dau, bai barru bai kanpo aldetik

EUSKERA

- udalerriko erritarrentzako zerbitzuen betebe-
rrak euskeraz emoteko gauza izan bear dau.

Baina, ez eurak bakarrik. Leen aitatu dogun lez, era-
bilerea erritarren esku dago eta. Eta egon bear-
ko. Errita-
rrek plangintza au eztabaidatu bear-
ko leukee. Eztebaida
teknikoa bultzatuz eta politikoa alboratuz. Euskerearen
normalizazioa erritarrekaz batera, bakarrik, burutu aal
izango dalako. Bear onetara erritarrak erakarteko, beste
ekintza batzuen artean, zuzpertzeko edo kontzientziatze
lanak ez dira gero, auzaren gauerdiko ez-
tulak.

Eginbidean agertu leitekezan sosterak zelangoak
diran indentifikatu bear dira:

- erritarren erantzun txatxarra.
- aldaketa sozio-ekonomiko eta politikoe-
k izkuntza egoeran euki leikeen aurkako eragina.

Eragozpenoi, baina, aurre egin bear jake.

Plangintza orokorra indarrean jarteko ez daukagu
denpora geiago galtzekorik. Egin egin bear dogu eta.
Arik arinen egin be.

Udaleko agintarien aldetik jarrera baikor, sendo,
zabal, ekinkor eta ausartarik ezean, ezin izango da ezer
ganorazkorik egin.

Euskal Erriko beste udalerrri batzuetan agintari poli-
tikoek euskerearen normalizaziorako plangintzearen
aldeko sendoro agiri dira. Bermeotarrok, esaterako. Eta
orrexegaitik miresten dodaz eta eurenganako nire begi-
rune osoa dauke. Zintzotasunez alde jokaturten dabela-
ko.

Euskaldun jaio nintzan,
euskalduna azi,
euskera utsik amak
eustan irakatsi;
euskera maite maite
zabiltz neugaz beti,
euskera il ezkeroko
ez dot gura bizi.
(Felipe de Arrese-Beitia - 1881)

Iniaki MARTIARTU

ERRIOXA'ra IBILLALDIA EUSKERAZAINTZA'rekin Irailaren 21'ean

OARRA

Ibillaldi onek elburu bi daukaz:

BAT: Gure kristiñau-sinismenaren antxiñako oiñatzak ezagutu.

San Millan sinismenaren aldetik iturria izan da Euskalerrian.

Ez dago orrelako itzalatasuna daukan beste etxerik.

BI: Euskera idatziaren iturriak ikusi Errioxa'n.

Eukeraz idatzitako aurrerengo itzak San Millan'en idatziak dira (992).

EUSKERAZAINTZA'k zuzentzen dau ibillaldi au euskerearen Erri-Akadeami dalako.

ZELAN JOAN:

Ez dogu uste Bilbao'tik autobus bat beteteko beste batu garanik. Orregaitik geure berebilletan joango gara eta an alkartuko gara Gipuzkoa 'tik doan autobus 'ekoakaz eta arabarrakaz.

IBILLALDIAREN ORDUAK:

9,00: Urten.

11,30: Yuso edo beko San Millan'en mezea.

12,15: Beko San Millan ikusi.

Suso edo goiko San Millan'en Naparroa'ko antxiñako erregen alde errespontsoa.

14,00: Senitarteko bazkaria: BADARAN " Comercio jatetxea " n (lursagarrak lukainkeagaz eta arkumearen saiatz erreak, Bertsolariak lagun).

16,00: Mañas lekaide-etxea ikertu eta oroigarriak erosi.

(Bizkai'ko Jaunaren alabeak dauan arpegiaren edertasuna ezagutu).

ORDAINTZEKO:

Arduraduna: Olazar'tar Martin. Tel.: 674 11 38 edo 674 01 23. Mungia.

Epearen azkena: Uztaillaren 31.


Ordaintzekoa: 1.800 pezeta. Bide-saria, berebeldunagaz berbatu.

Nora joan ziran? Gure erriakin naastu ziran? Bear ba'da, bai. Eta, bear ba'da, geure odoletan agertzen dan A zerki ori, eurok utzitakoa Izan liteke, Europa ifar-aldeko ezaugarri bait da A zerki ori...

- Aien siniskeriak ere gurekin daude.
- Bai, ala da. Ain maite degun lauburua, eurena da San Juan suak bezela. Euslakerria'n ez dago baztarrik San Juan surik egingo ez duenik. Ituren'go Yoaleak gureak direnik ukatu ezin: alaz ere 1963'garren urtean, Davos erriko elizaren apaiz batek esaten zidanez, bere erriko aldamen batean, udaberria eltzean, orrelako Yoaleak bazirala. Eta, oraindik orain, komunika-bideek eman digute Yugoelavia'ko erri batean oien antzeko zerbait, ardi narru eta yoale aundiak gañean zituztela.
- Europatan•en siniskeriak auek danak.
- Eurak gure artean urte akotxo igaro zituzten: Naparro eta Araba'n millatik aurrera; Gipuzko eta Bizkaia'n ez ainbeste; baña lareun urte bai. Gure artean urtu ziran, euren buruko siniskeria geuren buruetan lagata gero. Erri-sikologia-ren lege batek dionez, siniskeri edo ipuin baten Norkia, denboraren poderioz. aastutzen zaigunean, edo ura baño indar aundiagokin beste bat agertzen danean, orduan lenego Norkiaren ipuin eta siniskeriak, bigarren Norkiari eansten zaizkio...
- Basajauen gauza batzuek Jentillenak izaten dira.
- Eta. gero Sanson'enak eta bda Aralar'en arri aundi bat Rondan'ek botatakoa... Lenego eguzkiari egiten zitzaizkio suak, gerora San Juan'eri... Ori da sikolojiaren legea... Euskaldu errietan Jentillenak diran zenbait gauza, euskera galdutako errietan, moroenak izaten dira... Dana dala, suak irauten du oraindik. Euskerak eta Kristautasunak ekarri dizkigute, euren tolestetan, antxiña-antxiñako siniskeri asko.
- Don Joxe Miguel Barandiaran Ataun'dik asi zan lanean.
- Ataun erri euskalduna eta kristaua zan eta etnoloji-arazoa andik asi zuan. Eiztariak gintzala aztikeriak egiten genduzen koba-zoloetan, eize-irudien aurrean. eizea arrapatu aal izate-

ko. Geroago, artzai bihurturik, belarrari aztikeririk egin ezin eta gora begira asi giñan... An zeuden belarrak bear zitun eguzki eta ur... Andik asi zan euskalduna Ortzia eta onen indar guztiak.

- Izakiaren indarrei anima bat ipiñi zien?
- Eta jainko txiki biurtu. Euskalduna artzaia zan eta bera menperatzera etorri ziran europeotarrek ere bai: siniskeri berdiñak eta antzeko bearkizunak... Baña, ondoren etorri ziran erromatarren bide berriek galdu zituzten kastro, kastillar. kastillo eta Jentillen gaztelu guztiak. Ez zitun kristautasunak galdu, aurretik etorritako erromatarrek baizik.
- Burdeos, Garona, Dordoña
- Erromaterrak euren bideetatik etorri al ziran?
- Bai; baña, gurera kosta-ertzetik ere agertu ziran. Burdeos zan euren Uririk nagusiena eta andik zeuden Baiona, Bida-soa, Pasaia, Donosti, Getari, Deva, Artibai-Ondarru, Lea-Lekeitio. Gernika-Forua... Nervion-Bilbao-Flaviobriga...
- Burdeos'ek badu Garona izeneko ibaia.
- Eta Garona'ri. itxasoratu aurretik beste ibai bat datorkio, Dordoña deitua, eta onen inguru guztian daude Paleoliti-garai-ko kobarik famatuenak, Cro-Magnon'etik asita... Dordoña ibaia an goian gelditzen da Burdeos'tik sorkalderuntz; baña, Garoña, ez: goitik beera dator Pirenee mendartera. Onen gallur batean sortzen da zazpi iturburutxoetatik eta Burdeos'eraño jeistean, mako aundi bat egiten du. Mako orren barruan egon dira beti Akitania'ko euskaldunak...
- Garona berba bi itzez egiña dago: Gar eta Ona.
- Biak dira euskaldun utsak: Gar, mendi gallurra da (Garmendia, Gar-ate, Garaiko-etxea...) eta Ona. Ona de ur asko emeten duen mendia. Garona (Guide de Tourisme. MICHELIN PYRENEES. 3 Edition, 91 orrialdean dionez) izena errekatxo batzueri ematen zaio eta guztiak dira Gar-Ona, batez ere Garona de Ruda (Saboredo mendiaren inguruan) eta Garona de Jueu (Maladetta'ren ifar-aldean) sortzen direnei... Badirudi izena ez dala urarena, mendiarena baizik. Eta euskeraz orixe esan nai du Gar-ona'k.



– Garonak mako aundi egiten duela esan dezu.
 – Mako orren barruan ibiltzen ziran, ifal-alderuntz, Pirenee mendietako artzaiek... Or zegoen asierako Akitania. Gero Akitania gorago zabaldu zuten eta orduan sortu zan, or bertan, Novempopulania (Bederatzi Erriak). Hiztorian zear beste izen auk artuko zituen Ducado de Guyena eta Gasconia.

- Baña, ez al ziran amabi erri?
- Asieran Bederatzi zirenak gero Amabi gertatu ziran.

Ona izenak:


- 1/ Metropolis Civitas Elusantium (Eauze).
- 2/ Civitas Ausciorum (Auch-Armagnac).
- 3/ Civitas Aquentium (Dax).
- 4/ Civitas Boiatium (Buch eta Born).
- 5/ Civitas Beharmentium (Lescar-Bearne).
- 6/ Civitas Turba Ubi Castrum Bigorre (Tarbes eta Saint

Lizier-Bigorre)

- 7/ Civitas Convenarum (Saint Bertrand de Comminges)
- 8/ Civitas Consoratorum (Saint Lizier. Conserans)
- 9/ Civitas Aturiensium (Aire Sur l'Adour)
- 10/ Civitas Vasatica (Bazas-Basadois)
- 11/ Civitas Lectoratium (Lectoure-Armagnac)
- 12/ Civitas Iloronensis (Oloron-Bearne)

Ortxen zeuden Novempopulania'ko Amabi Iriak, bakoitza bere buruaren jabe eta guztiak erromatarren menpeko... Etruskoek ere Amabi Uri aundi ederrak zituzten benetako alkarterik gabe; bakoitza aske eta libre; Erroma'k banan banan zanpatu eta ezereztu zitun. Euskoak Etruskoen antzirudi omen gera; baña, gu bizi gera eta aiek bimilla urte aue-tan ilda daude; Ez erri, ez izkuntza, ez ezer. Illerriak bai, gurdi batek beera jo zuen egun artatik; zulo aretan aurkitu zituzten Etruskoen izugarriko illerriak. Arrezkero dira famatuak; baña aurretik, izan zirenik ere ez.

- Eta, gure arteko indoeuropeoak?
- Erri osoak ekin zioten Europa'ko egoaldera, zituzten




gauza guztiakin, sekulan euren sorlekura ez itzultzeko asmos. Ezpataz (iñungo ederrenak zituzten brontzezkoak eta gerora burnizkoak) edo itunez, eurak aukeratutako mendi-gallurretan eraiki zituzten, euren egoitzarako, kastro edo gasteluek arri-esiz ondo ornituak. Artzai eta nekazari ziran; baita olagizon trebeak ere, bai brontze bai burni arazoetan. Euretatik ikasi genduen burnia lantzen. Galdetu bestela San Martin Txikiri.

– San Martin Txikik Jentillei arrapatu zien burniaren tenplea eta ez Europeotarrei.

– Biak bat dira, geure ipuiñetan naastuta ba'dabiltza ere. Tenplearekin batera, baita burni-zerra eta itaia ere ostu omen zien. Aurretik, berriz, garia. Europeotar Jentil aueri azkena Erroma'k ekarri zien, Kristautasuna sortu orduko. Erromatarrekin ez zan erririk etorri, soldaduak bai eta euroekin batera jaurlaritzako jendea eta merkatarriak. Euskalduzentzako obe.

ARRINDA'TAR ANES



BIZKAI'KO ERDAL ADARRA

ERDEL DUNAK ETA EUSKAL DUNAK

Bizkai'ko lutelestiari begiratuta, sartaldera, zati aundi bat oso erdalduna arkitzen dugu, Nerbion ibai ondotik asita, Burgos'ko mugaraño dijoana, Karrantza barrena.

Bizkaia, bi taldetan dagola zatituta, bat oso euskalduna, bestea berriz era bat erdalduna esango genuke. Euskal zatia Bermeo, Ondarru, Markina inguruan biltzen zaigu; euskal idazle onez josita agertzen da.

* * *

IKASTOLAK

Beste aldetik, sartaldeko erdal adar luze ori, euskal kulturarentzat basamortu gorri, illun eta luze bat bezala azaltzen da.

Eredu bat ar dezagun; ikastolak.

Ikastoleen Federazioaren mapetan auxa ikusten dugu: Nerbion ibai ezker aldetik, ur bazterrean, ikastoleekin irien errenka luzea: Bilbo, Zornoza, Barakaldo, Trapaga, Sestao, Portugalete, Santurtzi, Abanto-Zierbana, Muskiz.

Adar luze ortan berriz Sodupe ta Balmaseda. mapa ortan, sartaldeko zati ortan, iri aundiak ikastolik gabe agertzen zaizkigu: Galdames, Sopaerta, Zalla, Karrantza, Urduña eta abar.

ALKAR EZAGUTU TA LAGUNDU

Beste zerbait esango genuke: Bizkai'ko euskal idazleetan, adar onetako gaiak eta aberzaleak gutxitan aipatuak daude.

Or, ere, basamortua nabarmentzen da.

Bizkai'ko euskal idazleen belarriak lurralde zabal eta eder oietaruntz irikiak ez daudela dirudi.

Gure asmoa garbia da: Biarko egunean, Bizkai'ko edertasunik aundiena ez dala izango GUGENHEIM delako artezko etxe berri egokia, euskara eder ori baizik, errikoa esan nai dugu.

Biakai'ko dirurik ederrenak, bide ortik joan bear luke: adar luze ortan euskara sortzen, azitzen eta loratzen. Bide ortik idazleak, batez ere Bizkaia'tarrak aurrera jo dezakete.

Nola?

Lendabizi lur zabal ori oñez ondo zanpatuz. Gu baño bertago bizi dire, gañera toki oiek, itsas bazterretako idazle askok ez dituzte ezagutzen. Ez dire bein ere izan.

Noizbait egin bearuko lukete ibillialdi zoragarri ori.

ZABALKUNDEA EGIN

An barrenean sartu bearra dago ta barrendik asita euskal deia dutenak arkitu, egitazko bitxiak bezala erabilli, ango berriak euskaraz eman eta oneruntz zabaldu: gai orretaz asko idatzi, angoko gizasemeak agertu, zenbat arduratzen diren lur aietaz azaldu.

Lendabizi asko erein bearra dago. Ori dena idazleen lana da. Ortarako, urregorriarekin, idazlan batzuek saritu bear lituzkete.

Bai, idazlan onak saria merezi luke. Egin al dezakete lan obegorik Bizkaia'n?

Adar luze ortan euskara pixtutzen dela, Bizkaia ederragoa ta aundiagoa osatzen dute.

LATXAGA

GUDARI

Izen berezia da,
Nekez, miñez betea
bere izatean.
Zenbat buru-min dozu
gogape zuzen ortan
deadar artean...?

Zuk ez zendun sortu
guda-gaiztakiririk,
gizonak ilteko.
Ez ziñan diru-zale,
jendeak menperatuz
zu jaun izateko.

Ez zeunkan nauskeririk,
besteen odola miztuz,
beti, bizi nairik.
Zure biotz barruan
ez zan arrokeririk,
iñor il eikenik.


Miñez, entzun zendun
guda ots garrazia
burruka oiñian;
amaren bizia zan
samiñez deadarka
eriotz aurrian.

Gudari izan ziñan,
egiaren zaindari,
etxeko lurrean;
bizia emon zeuntson
maite zendun lurrari
zuzentasunean.

Aberri-maitalea,
uso zuri bezela,
jokatu zenduan;
erri ta mendietan
zuzena izan ziñan
gudaren orduan.

PAULIN

EUSKALDUN **BARRIENTZAT**



Txarri onein artean bi dagoz bardiñak. Badakizu zeintzuk diran?

KARMELE



Itzau begiak une batez eta
begiratu zeure inguruari.

Eraikiñak, kaleak, aurtzaroen jolasten
zendueneko lekuak, ikastegia... Ainbat
eta ainbat gauza ez dira leengoak, ez da?
Garaiak aldatu egin dira. Ezin ezetz esan.
Aiekin batera, zuk oraindik atsegin
dozuzan gauza asko be desagertu egin dira.
Urbiltasuna, begikotasuna,
zuzeneko artu-emona... Orain egiozu so
antziñako sukursal orren argazkiari.
Eta konparatu BBK'ren egungo edozein
bulego ta sukursalekin.
Ez dira ain ezbardiñak.
Azkenean, garrantzitsuenak
bere orretan diraelako.
Gauza batzuk oiñarrikoak dira eta on
ondo dakigu BBK'kook.
Garaietan zear aldatu egin gara. Jakiña.
Bahia leengo berberak gara.
Zuri laguntzeko. Eta zure alegiñaz
eta geurez onurak itzultzeko.

Betidanik.



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa
EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK